ABENDUA 2023 | XII. ZENBAKIA

BAGABILTZA

LHK-ko euskara-planaren buletina

Euskara Saioa

Abenduaren 14an ospatu genuen 2023 urteko hirugarren eta azken Euskara Saioa. Urte amaieran ohikoa den moduan, urtean zehar egindako ekimen nagusien errepasoa egin genuen, eta 2024 urteari begira ere jarri ginen. Guztira, 14 kide batu ginen (Gasteizko egoitzako lankideak, telematikoki), eta azpimarratzekoa da Emilia Málaga gure presidente berriak lehenengoz hartu zuela parte horrelako saio batean.

Saioaren bigarren zatian adimen artifizialaz aritu ginen, eta euskarak egun mundu horretan duen lekuaz jardun genuen. Teknopolis saioko erreportaje-zatia ikusteaz gainera, saio praktiko batzuk ere egin genituen: Gaitu proiektua, Elia itzultzaile neuronala, Hitza Pasa jokoa...

Bilkura giro onean egin zen, eta balorazioa oso positiboa da.

GAITU

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan Erronka berri bat dugu: makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu.
Klikatu irudian eta egin zure ekarpena!

elia
elhuyar

Elhuyarrek garatutako Elia euskarazko itzultzaile neuronal automatikoak ahotsa ere badu orain. Bere web bertsioa probatu eta entzun. Testu bat itzultzeko eman, eta, orain arte bezala, emaitza agertzen da, baina bozgorailu aukera ere badugu, emakumezko edo gizonezko ahots aukerekin. Klikatu itzulpena entzuteko, irudian ikusten den bezala.

ALBISTE OSOA



ZUTABEA

Naroa Diaz Criado

Urriko zutabea Lan Harremanen Kontseiluan esperientzia handia duen profesional batek idatzi zuen. Aldiz, orain niri egin didate gonbita, hasi berria naizen honi. Nire esperientzia laburra eta xumea bada ere, hausnarketatxo bat egiteko denbora izan dudala esan dezaket.
Dakizuen bezala, eta nire aurkezpenean aurreratu dudanez, ni beste arlo batetik natorren profesionala naiz, zehazki arlo sozialetik, eta hasiera batean Lan Harremanen Kontseiluan egiten den lanetik oso urrun zegoen lan batetik nentorrela uste nuen.
Egia esan, eremu askotan horrela izan da, ez dizuet ezetz esango, baina konturatu naiz, beste modu batera bada ere, Lan Harreman Kontseiluak ere laguntza handia eskaintzen duela gizartean. Izan ere, lan-gatazkak ebatziz, desberdinenen arteko akordioak erraztuz, elkarrizketa bultzatuz edo lan-arloko zalantzak argituz, lan-sistema sendo eta hobe baten alde lana egiten duen kontseilu honek ez nau nire izatetik urrundu, ez horixe: besteei laguntzeko beste modu bat ezagutzeko aukera eman didala aitortu behar dizuet.